Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**ERABAKIA, 2020ko uztailaren 28koa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, horren bidez, EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEArako F 426 Bulegoko burua lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia hutsik geratuko dela adierazteko dena.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa**.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2020ko uztailaren 3ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena**.- Gerentearen erabakiaren bidez, 2020ko uztailaren 28koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen onartutako lehiakiderik gabe.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa**.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 35/2015 Legea (2015eko urriaren 2ko EHAAn argitatarua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena**.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn).

*Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,*

## ERABAKI DU

**Lehenengoa**: Erabaki honen eranskinean zehasten den lanpostua betetzeko prozedura amaitutzak jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

**Bigarrena**.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

**Hirugarrena**.- Erabaki hau jakinaraztea, dagozkion Zerbitzuko Buruari edo Admnistratzaileari. Har beza kontuan AZPkoen Atalak.

**Laugarrena**.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2020ko uztailaren 28an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

## I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA 2020/07/3

| | |
|---|---|
| | HUTSIK / DESIERTA |
| Lanpostuaren Izena: | Bulegoko burua |
| Lanaldia: | Arautua |
| Eref.: | F 426 |
| Zenbatgarrena: | 13 |
| Maila: | 19 |
| Taldea: | C/D |
| REskala: | Administraria/Administrari laguntzailea |
| H.E.: | 2; 1994ko urriaren 30a |
| Langunea: | EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA |
| Campus: | GIPUZKOA |
| BE: | |
| Ondorio data: | |